



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### EZ OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2023ICGO0011

**Eguna:** 2023-10-10

**Ordua:** 12:00 – 12:30

**Tokia:** alkatetza

#### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa ..... Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero ..... Astigarragako EH Bildu
- Patxi Suarez Perez ..... Udal talde euskal sozialistak

#### Bertaratu ez direnak

- Maria Otaegi Velez ..... Astigarragako EAJ-PNV

#### Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

#### Aztergaiak

1. 2023ko irailaren 26ko akta onartzea.
2. Andre Gobadarien Parkea izeneko ibai-parkea handitzeko obren kontratazio-espeditentea. Esleipena
3. Atezain-administrari laguntzaile lanpostua, Euskara eta hezkuntzako teknikaria eta saileko arduraduna lanpostua, Lan anitzeko peoen bi plaza, Brigadako arduradun lanpostua eta Obra eta Zerbituetako arduraduna eta Arkitekto Teknikoa lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketan epaimahaiak.
4. Informazio, galdera eta eskariak.

#### Esan-eginak eta erabakiak

##### 1.- 2023ko irailaren 26ko akta onartzea.

Aktaren 3. aztergaiaren (Garapenerako lankidetzaren programaren laguntzak ematea) Gizarte Zerbitzuak eta Adineko pertsonen batzorde informatiboaren irizpena gaizki jaso da, izan ere, EUSKAL FONDOARI 7.745,75 €ko diru-laguntza falta da, tokiko batzarrak ematea ere onartu zuena.

Zuzenketa horrekin, akta aho batez onartu da.

##### 2.- Andre Gobadarien Parkea izeneko ibai-parkea handitzeko obren kontratazio-espeditentea. Esleipena

Alkateak kontratu-espeditentearen nondik norakoak azaldu ditu, eta adierazi lehiaketara 5 enpresa aurkeztu direla. Jarraian, kontratazio mahaiko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**LEHENA.-** Andre Gobadarien Parkea izeneko ibai-parkea handitzeko obren kontratua CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA enpresari ESLEITZEA, 408.016,68 €tan –baldintzaturik bigarren akordioan jasotakoa betetzera–, bera izan baita lizitazioan puntuaziorik handiena lortu duena, 96,31 puntu, hain zuzen ere.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

**BIGARRENA.-** Enpresa esleipendunak, akordioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean, behin behineko 20.400,83 euroko bermea jarri beharko du – eta baldintza plegu administratiboen 25. klausulan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu eta aldez aurretiko baldintzak egiaztatu.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### **3.- Atezain-administrari laguntzaile lanpostua, Euskara eta hezkuntzako teknikaria eta saileko arduraduna lanpostua, Lan anitzeko peioen bi plaza, Brigadako arduradun lanpostua eta Obra eta Zerbituetako arduraduna eta Arkitekto Teknikoa lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketan epaimahaiak.**

Alkateak udal idazkariaren proposamenaren nondik norakoak azaldu du. Adierazi du hautaketa-prozesuetarako epaimahaiak eratzeko arazo handiak dituela udalak, alde batetik, horien osatzeko legeak ezartzen dituen baldintzengatik (karrerako funtzionarioak izatea, bi sexuen oreka eta espezializazio-printzipioa) eta bestetik, IVAPEk ere eskatzen duelako berak izendatu beharrekoak udalak proposatzea.

Halaber, alkateak oposizio-lehiaketa prozesuaren nondik norakoak azaldu ditu, eta besteak beste, azaldu du onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak onartu eta epaimahaia izendatu ondoren, azken horren esku gelditzen dela hautaketa-prozesua.

Jarraian, proposamen hau aurkeztu onartua izan dadin:

**“Lehena.-** Atezain-administrari laguntzaile lanpostua, Euskara eta hezkuntzako teknikaria eta saileko arduraduna lanpostua, Obra eta Zerbituetako arduraduna eta Arkitekto Teknikoa lanpostua, Brigadako arduradun lanpostua eta Lan anitzeko peioen bi plaza betetzeko oposizio-lehiaketan 7.1.1 oinarria aldatzea (Epaimahai kalifikatua. Osaera), eta guztietan honela idaztea:

**“Zazpigarrena.** Epaimahaia.

#### **7.1. Osaera.**

1.– Hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzailea indarreko legerian adierazitakoaren arabera eratuko da (896/91 Errege Dekretua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legea, 364/95 Errege Dekretua eta Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua).

Izango ditu lehendakari bat, **hiru** kide (horietako bat Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatuko du) eta idazkari bat, bai eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak euskararen egiaztapen-probak baloratzeko izendatzen duen kidea ere.

Bere osaera osoa GAO-n argitaratuko da, aldez aurretik alkate-udalburuak izendatuta.”

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web-orrian ([www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus)) argitaratzea egindako aldaketa.”

Bozkatzera ekin zaio eta proposamena aho batez onartu da.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### **5..Informazio, galdera eta eskariak**

Alkateak komentatu du urriaren 24an hainbat batzorde informatibo egingo direla, besteak beste, bozeramaileen batzordea Stop Desahucios taldeak aurkeztutako mozioa aztertzeko. Patxik komentatu du mozio hori jaso zuela, baina ez duela eskuragarri eta udal-idazkariak berriro bidaliko diola adierazi dio.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko urriaren 10ean.

Kontxi Urdampilleta Santamaria  
Ordezko idazkaria